



Jaia Laia eta **berria**ren eskutik
'Musika Munduko Jolastokian'
 Fermin Muguruzak prestatutako musika bilduma bikaina



JAMAICA
 Cedella Marley-Booker
 with Taj Mahal: "Smilin'
 island of song"

Larunbata, 2007ko maiatzak 12, 19:45:13an berritua

PAPERREKO EDIZIOA EUSKAL HERRIA MUNDUA KIROLA PLAZA

EZTABAIDAGUNEA BLOGAK BEREZIAK HARPIDETU

Papereko edizioa Ostirala, 2007ko maiatzak 11

SAILAK »

Harian | Iritzia | Kirola | Agenda | Plaza

PLAZA

Frantziako blu

MaraTiLa

aurelia arkotxa

Asteartea. Abdela Taia *Salbazioko Armada* presentatzera jina da Donostiara. Prentsa aurrekoaren burrunba itzali da azkenean. Ia nehor ez da gelditzen. Isiltasuna. Bagoaz portura. Aroa udakoa. Baina eni eguzkiaren saminak begiak erretzen. Bortitza zait eguzki hau. Ozonean ziloa handitu balitz bezala bapatean, erretzen naute arraiek. Ni naiz beharbada gaur usaian baino minberago. Portu zaharreko ontzien koloreetan, uraren dirdirak. Arrain bizkar sardak branken inguruan. Han, goitian, Bihotz Sakratua. Beheitan, karrika batzuk barnerago, katedrala zaharra. Sebastian sainduak, erdi biluzirik, besoak eta zangoak estekatuak, gezi bat izterrean hitzatua duela, sofrikario-extatiko sentsual batean murgildua dirudi. Katedralaren saihets ilunaren gainean, harrien arteketan, landare basak, goroldioa. Jendea badabil portuan aroaren saboreatzen, besoak eta zangoak eguzki printzeari erakutsiz. Indiferente, iduriz. «Goizean irratan zioten errusiar miliardun baten yate handi batean zegoela, Maltako kostan... », erraten diot Abdelari. Plaian jende guti. Kontxako badiako urak ere, gaur gogorarazten dit, nahigabe, Sarkoren partidokoen kamiseten *bleu de France* kolorea. Lehenengo itsasturien ontzi handi beladunak orain ditut gogoan salbabide balira bezala. Baina badia ere huts. Dirdir huts metalikoa denean. Han, Atlantikako itsas zabaleko aterabidea. Asteazkena. *Le Canard*...en dut jakiten yatea ez zela errusiar miliardun batena, Vincent Bolloré frantses *grand patron*, nagusi handi, miliardunarena baizik.

BLOGAK

Konponbidearen talai
Erregearen izenean

Erantzunak: 0

Mendiko behatokia
Miragin, nahi bazenu

Erantzunak: 0

Inon izatekotan
Hau demokrazia bada

Erantzunak: 2

HARPIDEDUNEN KIOSKOA

Saridunak

EZTABAIDAGUNEA

Lortuko al du ASB Abertzale Sozialisten Batasunak aukera berdintasunean lehiatzea datozen hauteskundeetan?

Eman zure iritzia!

Zer lehentasun izango zenituzke zeure herriko alkate izango bazina?

Eman zure iritzia!

Zer ekarriko du Nicolas Sarkozyren agintaldiak?

Eman zure iritzia!


Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak proposatu duen ereduak bermatuko al du ikasle guztiak ezarritako euskara maila lortzea?

BAI

EZ

© BERRIA-Edizio Digitala
 berria@berria.info - www.berria.info

Lege Informazioa

Euskal Editorea S.L. , Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel  943 304 030 Fax 943 590 172

